



Egitura berdineko bi proba-proposamen ematen dira (A aukera eta B aukera) Ikasleak horietako **BAT** aukeratu beharko du.

### A AUKERA

**1. Zatia.** (2 puntu, 0,5 termino bakoitzeko)

Definitu, garbi eta zehatz, termino hauetatik soilik 4: Biztanle-errola, Ur freatikoak, Isohietak, Hazkunde erreala, Nekazari-exodoa, Handizkariak.

**2. Zatia.** Gaia: "Nekazaritza Espainian" (4 puntu gehienez ere)

Garatu gaia, gutxienez alderdi hauek kontuan izanda:


- Espainiako nekazaritzaren faktore erabakigarriak.
- Nafarroako nekazaritza aldeak.

**3. Zatia.** Ariketa praktikoa. (4 puntu gehienez ere)

Komentatu behean duzun grafikoa, honako galdera hauei erantzunez:

- Temperaturen eta prezipitazioen bilakaera, urtean zehar.
- Zein klimatakoak diren aurkeztutako datuak, eta, gutxi gorabehera, non kokatzen diren Espainian.
- Alderdi horri eragin diezaioketen dinamika atmosferikoaren egoerak.
- Klima-mota honen eragina inguruneko beste hainbat elementutan.

Urteko prezipitazioa: 314 mm    Urteko batez besteko T.: 14,6 °C





## GEOGRAFÍA 2006

### B AUKERA

**1. Zatia.** (2 puntu): 0,5 termino bakoitza)

Definitu, garbi eta zehatz, termino hauetatik soilik 4: Maastricht-eko Ituna, Isobarak, Espazio babestuak, Egutera, Hirigune historikoa, Landa-turismoa.

**2. Zatia.** Gaia: “Espainiako sare hidrografikoa”. (4 puntu gehienez ere)


Garatu gaia, gutxienez, ondoko alderdiak kontuan izanda:

- Espainiako ibaien trazatuan, emarian eta erregimenean eragiten duten faktoreak.
- Isurialde eta arro hidrografikoak.
- Nafarroako ibaiak: ezaugarriak eta isurialde hidrografikoak.

**3. Zatia:** Ariketa praktikoa. (4 puntu gehienez ere)

Behean daukazun mapa ikusirik:

- Aipatu Espainiako hiri-aglomerazioen banaketa espazialaren ezaugarriak.
- Deskribatu mapan azaltzen diren hiri-ardatz nagusiak.
- Esan zein diren 500.000 eta 1.500.000 arteko biztanle-kopurua daukaten hiri-aglomerazioak.



Espainiako hiri-aglomerazioen banaketa espaziala.